

- Zein da zure bezeroa?
 - Zein dira bezero horien ezaugarriak?
-

Zein da gure bezeroa?

Ezinduak, ezinduak kontratatzen dituzten enpresak, batez ere, ezintasun fisikoa, ezintasun organikoa, ezintasun kronikoa eta ezintasun mentala duten ezinduetan oinarritzen da gure enpresa. Zerbitzuak haientzat bideratuta daudelako.

Bestalde, enpresak bezero bihurtzeko eta gure zerbitzua kontuan hartzeko gure zerbitzuak eskainiko dizkiegu, haiek onura bat lor dezaten gudan; adibidez, ospea lortu dezakete guk marketing kanpaina bat egitean eta bere enpresa agertzean. Marketing kanpaina bat egiterakoan, enpresaren irudimena hobetzen du, bai bezeroen aurrean eta bai langileen aurrean, horren ondorioz, kontsumitzaileen leialtasuna areagotzen du. Kontsumitzaileek gero eta interes handiagoa dute ezinduak kontratatzen dituzten enpresetan, horrez gain, ezindu bat kontratatzerakoan, kontsumitzaileekin konektatzeko bide bat izango litzateke. Halaber, ezindu bateri kontratatzean, lan-ingurune egokia sustatu eta arazoak konpontzeko ikuspegi berriak ekartzen dute. Ez hori bakarrik, ezindu bat kontratatzerakoan, epe luzerako egonkortasuna sustatzen da, hau da, ezinduek asko baloratzen dute enplegu bat izatea, hortaz, ezinduek enpresarekin epe luzerako konprometitzen dira. Bestalde, enpresetan, desgaitasuna duen norbait mugarik gabe kontratatzen duen enpresa batek 4.500 eta 6.300 euro arteko kenkaria izan dezake Gizarte Segurantzako kotizazioetan, eta horri 12.000 eurorainoko beste kenkari bat gehitu dakioke kontratazio horretarako lanpostu berri bat sortzen badu. Hau da, ezintasun bat duen pertsona bat kontratatzen duen enpresak, zerga gutxiago ordaindu behar du, hor sartzen gara gu, enpresei proposatzen diegu ezintasunak duten pertsonak haien enpresetan lan egitea diru baten truke eta haiek zerga gutxiago ordaintzea irabazten dute.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Ezintasun fisikoa, ezintasun organikoa, ezintasun kronikoa eta mentala

EZINTASUN MOTAK	ZER DA?	EZAUGARRIAK
EZINTASUN FISIKOA	Gorputzaren gaitasun baten galera da, gaixotasun, istripuen ondorioz izaten dira nagusiki. Horrez gain ezintasun iraunkorra da.	1.mugikortasun falta 2.sentikortasun falta 3.oreka falta 4. mina gorputz adarretan 5. berezko mugimenduak
EZINTASUN ORGANIKOA	organo edo sistemaren funtzionamendu oker edo kalte baten ondorioz sortzen den desgaitasuna da, pertsonaren bizitza edo eguneroko funtzioak murrizten dituena.	1.Organoen funtzionamenduaren kaltea 2.Desgaitasun iraunkorra edo aldi baterakoa 3.Bizitzan kalitatean murrizketak 4.Eragin fisiko eta psikologikoak 5.Tratamendu medikoak eta laguntza espezializatua
EZINTASUN KRONIKOA	Pertsona baten osasun-egoera luze eta iraunkor batek eragindako mugak edo ezintasunak dira. "Kronikoa" dela esaten da, luzaroan irauten duelako.	1.Iraunkortasuna 2.Eragina eguneroko jardueretan 3.Tratamendu eta laguntza behar izatea 4. Sintoma aldakorrak eta progresiboak
EZINTASUN MENTALA	Pertsona baten garapen baldintza bat da, non pertsonaren funtzionamendu intelektualean eta egokitze trebetasunetan mugak dituztenak dira. Horrek eragina du ikasteko, erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko eta eguneroko lanak egiteko duen gaitasuna.	1. Mugak dituzte eguneroko bizitzan funtzionatzeko 2. Gehiago kostatzen zaie trebetasun sozialak eta intelektualak ikastea egoera desbedinetan jarduteko 3. 22 urte izan baino lehen garatu 4. Arazoak sortu artikulazioetan, ahoskeran, 5. Sentikorrangoak dira 6. Egozentrikoak dira, uste dute objektuak eta besteen mundua haren inguruan biratu 7. Perseberanteak dira, portaerak errepikatze obsesioa